


Ikastolako Ohiko Batzar Orokorra

2023ko Ohiko Batzar Orokorra, azaroaren 16an, **OSTEGUNEZ**, arratsaldeko **17:30ean** (lehen deialdian), **18:00etan** (bigarren deialdia) eta hala badagokio, **18:30ean** (hirugarren deialdian) **Agerialde eraikineko 2. solairuan (Alperroburu, 5)** egingo dela jakinarazten zaizue.

Batzarreko dokumentazioa bazkide diren familia eta ikastolako langileei emailaz helaraziko zaizue hurrengo egunetan. Hona hemen [deialdia](#).

Antolaketa egoki bat egin ahal izateko, bertaratu behar duenak, mesedez, [galdetegi hau](#) bete asteazkena baino lehen.



Bazkidetza

Udarregi Ikastola kooperatibako urteko bazkidetza-kuota azaroko erreziboarekin batera kobratuko dela jakinarazten dugu. Bazkidetza familiako da eta **12,02 euro** ordaintzen dira.



Txokolatedun egutegia eskatu duzuenontzat oharra

Eskaerak egiteko azken eguna gaurkoa da. Astelehenean kontaketa egin eta eskaera bideratuko dugu.

Haur bakoitzak bere tutoreari egin beharko dio eskatutako kaxa kopuruaren arabera ordainketa azaroaren 13tik 17ra bitartean. Egutegiak azaroaren azken astean banatuko dira.

Bide batez, gure eskerrik beroenak ekimen honetan parte hartu duzuen familia guztiei... gutxika-gutxika asko lortzen da!



Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2024ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak HH4

HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

[NEURRI HORIEK](#) ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU [DENOK](#) ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA




LEHEN HEZKUNTZA

LH 1eko familientzat oharra

Datorren astean, baimena duten LH1ko ikasleei optometristak froga ezberdinak pasako dizkie.

Ondoren, froga horien emaitzak jasoko dituzue eta **azaroaren 22an**, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan, agerialdeko 2. solairuan **bilera informatiboa** egingo da. Bertan, ikasleei egin zaizkien frogen berri emango da txostena hobeto ulertu ahal izateko. Horrez gain, ikusmen-prebentzioko aholkuak eta kaltetuak ikusi diren ikusmen-trebetasunak hobetzeko zenbait ariketa emango dira.

Frogak pasa zaizkien hauren familiei 14 euro kontu korrontetik kobratuko zaizkizue hileko errezioboarekin batera.



Zorriak

Ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

[NEURRI HORIEK](#) ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU [DENOK](#) ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Irteera-kobrantzak

❖ LH3-4

GAUR, azaroak 10, LH 3. eta 4. mailako ikasleek Txuri Urdinera egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **11,35 €** izango da.



❖ LH5-6

GAUR, azaroak 10, LH 5. eta 6. mailako ikasleek Txuri Urdin eta Miramonera egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **13,90 €** izango da.

Irakurketa solasaldia

Azaroak 15, asteazkena, 18:15ean, IRAKURKETA-SOLASALDIA, 9-11 urtekoei zuzenduta (LH4, 5, 6). Mintzagai: Yolanda Arrietaren MARI XOR; Yolanda bera gure artean izango da. Liburuaren hainbat ale jada eskuragari dugu Sutegi Liburutegian. Izen-ematea: Sutegi Liburutegian.



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteera-kobrantza DBH2

GAUR, azaroak 10, DBH 2. mailako ikasleek **Bertitz-Narbartera** egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30,00 €** izango da.



Ikastaroak atzerrian egiteko dirulaguntza-deialdia

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta, udan atzerrian ikastaroak egiteko diru-laguntza deialdia egin du. Eskaera egiteko epea **azaroaren 23a** bitarte irekita egongo da. Informazio osoa [hemen](#).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN